

<b>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2014KO IRAILAREN 16AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</b>	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 16 DE SEPTIEMBRE DE 2014.</b>
<b><u>BERTARATUAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTE</u></b>

Imanol Landa Jauregi jn.

<b><u>BATZARKIDEAK</u></b>	<b><u>VOCALÉS</u></b>
----------------------------	-----------------------

Keltse Eiguren Alberdi and.  
Koldo Iturbe Mendilibar jn.  
Joseba Arregi Martínez jn.  
Ana Helguera Líbano and.  
Elena Coria Yanguas and.  
Kepa Miñambres Llona jn.  
Josu Loroño Goienetxe jn.

<b><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></b>	<b><u>SECRETARIO GENERAL</u></b>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko irailaren hamaseian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a dieciséis de septiembre de dos mil catorce, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con

da emaitza:

**298.- 2014KO IRAILAREN 9AN  
EGINDAKO OHIKO BILERAKO  
AKTA ONESTE.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2014ko irailaren 9ko bilerakoa, hain zuzen.

**OGASUNA, KONTUAK,  
EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA  
BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA  
EUSKARA**

**299.- GETXOKO UDALERRIKO  
GARBIGUNEA KUDEATZEKO ETA  
LANERATZEKO ZAILTASUNAK  
DITUZTEN TALDEAK  
SUSTATZEKO ZERBITZUA  
LUZATZEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: URTEBETEZ (2. eta azken luzapena) luzatzea, 2014/09/20tik 2015/09/19ra, EMAUS SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U. (IFK:B-95308979) sozietatearekin GARBIGUNEAREN KUDEAKETA-ZERBITZURAKO ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN GIZA TALDEEN SUSTAPENA EGITEKO izenpetutako kontratuaren indarraldia 36.075,17 € gehi horren BEZaren %10ari dagozkion 3.607,52 euroren truke.

BIGARRENA: Luzapen horri aurre egiteko beharrezko gastua baimentzea eta xedatzea, zehazki, 36.075,17 € gehi horren BEZaren %10ari dagozkion

el resultado siguiente:

**298.- APROBACIÓN DEL ACTA DE  
LA ANTERIOR SESIÓN  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 9  
DE SEPTIEMBRE DE 2014.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 9 de septiembre de 2014.

**HACIENDA, CUENTAS,  
PROMOCIÓN ECONÓMICA,  
RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD  
Y EUSKERA**

**299.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE  
GESTIÓN DEL PUNTO LIMPIO Y  
PROMOCIÓN DE COLECTIVOS  
CON DIFICULTADES PARA EL  
ACCESO AL MUNDO LABORAL.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (2ª y última prórroga), desde el 20/09/2014 al 19/09/2015, la vigencia del contrato suscrito con EMAUS SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U. con C.I.F.: B-95308979 para el SERVICIO DE GESTION DEL PUNTO LIMPIO Y PROMOCION DE COLECTIVOS CON DIFICULTADES PARA EL ACCESO AL MUNDO LABORAL, por importe de 36.075,17.-€ más 3.607,52.-€ correspondiente al 10% de I.V.A.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario, por importe de 36.075,17.-€ más 3.607,52.-€ correspondiente al 10% de I.V.A. para

3.607,52 euro.

**300.- GETXOKO UDALAK EGITEN  
DITUEN OBRETAKO OSASUNA  
ETA SEGURTASUNA AZTERTZEKO  
ETA KOORDINATZEKO  
KONTRATATUTAKO ZERBITZUA  
LUZATZEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: URTEBETEZ (2. eta azken luzapena) luzatzea, 2014/10/01etik 2015/09/30era, GETXO PAYMA COTAS S.A.U eta RCS ARQUITECTURA Y PREVENCION, S.L.P enpresek osatutako ABEEarekin (IFK: U74267824) GETXOKO UDALEKO OBRETAKO SEGURTASUN- ETA OSASUN-ARLOKO AZTERKETAK IDAZTEKO ETA KOORDINATZEKO ZERBITZUA eskaintzeko izenpetutako kontratuaren indarraldia.

Luzapenaren zenbatekoa, guztira, urtean, 34.814,99 euro gehi horren BEZaren %21ari dagozkion 7.311,15 eurokoa da, jarraian adierazten den moduan banatuta:

1. Proiektua prestatzerakoan edota azterketa edo oinarritzko azterketa idazterakoan segurtasun- eta osasun-arloan koordinazioa eta obra egikaritzeko segurtasun- eta osasun-arloan koordinazioa: Baldintza Teknikoen Pleguaren 6. Klausulan zehaztutako H emaitzari %32ko jaitsiera. Hortik ateratzen den zenbatekoan, lan horiei dagokien BEZa sartuta dagoela ulertuko da. Lan horiei dagokienez, aurreikusitako gastuaren gehienezko muga 25.995,64

hacer frente a la citada prórroga.

**300.- PRÓRROGA DEL SERVICIO DE  
REDACCIÓN DE ESTUDIOS Y  
COORDINACIÓN EN MATERIA DE  
SEGURIDAD Y SALUD EN LAS  
OBRAS DEL AYUNTAMIENTO DE  
GETXO.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (2ª y última prórroga), desde el 1/10/2014 al 30/9/2015, la vigencia del contrato suscrito con la U.T.E.GETXO PAYMA COTAS S.A.U y RCS ARQUITECTURA Y PREVENCION, S.L.P., con C.I.F.: U74267824, para la prestación del SERVICIO DE REDACCIÓN DE ESTUDIOS Y COORDINACIÓN EN MATERIA DE SEGURIDAD Y SALUD EN LAS OBRAS DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO.

El importe total de la prórroga asciende a 34.814,99.-euros anuales más 7.311,15.-euros correspondiente al 21% de I.V.A., distribuido de la siguiente forma:

1. Coordinación en materia de seguridad y salud durante la elaboración del Proyecto y/o redacción del estudio o del estudio básico y coordinación en materia de Seguridad y Salud durante la ejecución de la obra: Baja del 32% al resultado H de la fórmula determinada en la Cláusula 6 del Pliego de Condiciones Técnicas. En el importe que se obtenga se considera incluido el I.V.A. Respecto a estas labores, el límite máximo de gasto previsto es de 25.995,64.-euros/año más

euro/urtean gehi horren BEZaren %21ari dagozkion 5.459,08 € izango da.

2. Udaleko lantaldeek gauzatutako obretan edota lanetan segurtasun- eta osasun-arloan koordinazioa: 8.819,34 € gehi horren BEZaren %21ari dagozkion 1.852,06 €.

BIGARRENA: Luzapen horri aurre egiteko beharrezko gastua baimentzea eta xedatzea, zehazki, 42.126,14 € (BEZa barne).

**301.- GETXOKO UDALERRIKO FAUNA ETA NATURA INGURUNEA HAUTEMATEKO ETA AZTERTZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASTEKO, BALDINTZA-AGIRIAK ONESTEKO ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: GETXOKO UDALERRIAN FAUNAREN ETA INGURUNE NATURALAREN JARRAIPEN-AZTERKETAK EGITEKO ZERBITZUA publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko arauzko izapidetzearekin hasia baimentzea. Horren lizitazio-aurrekontua, %21eko BEZa barne, 25.000 eurokoa (HOGEITA BOST MILA euro) izango da.

Kontratua egikaritzeko epea URTEBETEKOA (1) izango da, hura izenpetzen denetik zenbatzen hasita eta BESTE URTEBETEZ (1) luzatu ahal izango da; alabaina, kontratuaren

5.459,08.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

2. Coordinación en materia de seguridad y salud en las obras y/o trabajos ejecutados por las brigadas municipales: 8.819,34.-€ más 1.852,06.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: Autorizar y dispone el gasto necesario para hacer frente a la citada prórroga por importe de 42.126,14.-euros anuales (I.V.A. incluido), para hacer frente a la citada prórroga.

**301.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE ESTUDIOS DE SEGUIMIENTO FAUNÍSTICO Y DE MEDIO NATURAL EN EL MUNICIPIO, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante procedimiento negociado sin publicidad, del SERVICIO DE ESTUDIOS DE SEGUIMIENTO FAUNÍSTICO Y DE MEDIO NATURAL EN EL MUNICIPIO DE GETXO, cuyo presupuesto de licitación, IVA del 21% incluido, será de 25.000€ (VEINTICINCO MIL euros).

El plazo de ejecución del contrato será de 1 (UN) AÑO, a contar desde la fecha de la firma del mismo, siendo prorrogable por OTRO AÑO MÁS (1), sin que pueda la duración total del

iraupen osoak ezingo du 2 (BI) urtetik gorakoa izan.

BIGARRENA.- Administrazio-kontratazioa eraenduko duten Administrazio Klausula Berezien eta Teknikoen Pleguak onartzea.

HIRUGARRENA.- Erreferentziazko zerbitzuaren kontrataziotik eratorritako betebeharre aurre egiteko beharrezko gastua baimentzea, zehazki, 25.000 € (HOGEITA BOST MILA euro).

**302.- IKASTETXEETAKO LEHEN HEZKUNTZAKO 6. ETA DBIKO 2. IKASMAILETAN AFEKTIBITATE ETA SEXUALITATE HEZKUNTZA IRAKASTEKO PROGRAMA GAUZATUKO DUEN ZERBITZUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASTEKO, BALDINTZA-AGIRIAK ONESTEKO ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: IKASTETXEETAN, LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAN ETA BDH-N, AFEKTIBITATE- ETA SEXUALITATE-HEZIKETA PROGRAMA GARATZEKO ZERBITZUA publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitzeko arauzko izapidetzearekin hasia baimentzea. Horren lizitazio-aurrekontua, 17.000 eurokoa (HAMAZAZPI MILA euro), %10eko BEZa barne, izango da.

Kontratua egikaritzeko epea URTEBETEKOA (1) izango da, hura izenpetzen denetik zenbatzen hasita eta

contrato exceder de los 2 (DOS) años.

SEGUNDO.- Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO.- Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 25.000€ (VEINTICINCO MIL euros).

**302.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE EDUCACIÓN AFECTIVO-SEXUAL EN LOS CENTROS ESCOLARES, EN 6º DE PRIMARIA Y 2º DE LA ESO, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante procedimiento negociado sin publicidad, del SERVICIO PARA EL DESARROLLO DEL PROGRAMA DE EDUCACIÓN AFECTIVO-SEXUAL EN LOS CENTROS ESCOLARES, EN 6º DE PRIMARIA Y 2º DE LA ESO, cuyo presupuesto de licitación será de 17.000€ (DIECISIETE MIL euros), IVA del 10% incluido.

El plazo de ejecución del contrato será de 1 (UN) AÑO, a contar desde la fecha de la firma del mismo, siendo

BESTE URTEBETEZ (1) luzatu ahal izango da; alabaina, kontratuaren iraupen osoak ezingo du 2 (BI) urtetik gorakoa izan.

BIGARRENA.- Administrazio-kontratazioa eraenduko duten Administrazio Klausula Berezien eta Teknikoen Pleguak onartzea.

HIRUGARRENA.- Erreferentziazko zerbitzuaren kontrataziotik eratorritako betebeharreri aurre egiteko beharrezko gastua baimentzea, zehazki, 17.000 € (HAMAZAZPI MILA euro), %10eko BEZa barne.

**303.- GETXO AKTIBATU PROIEKTUA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZUAREN 2. LOTEA ESLEITZEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK  
LEHENENGOA.-Tokiko Gobernu Batzordeak 2014/07/01ean egindako bilkuran hatutako 243 zenbakidun Erabaki bidez, GETXOAKTIBATU 2014 PROIEKTUA KUDEATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZUA esleitzeko izapidetzeari ekin zitzaion 32.691,78 euroren (HOGEITA HAMABI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA euro eta HIRUROGEITA HAMAZORTZI zentimo) truke, %21eko BEZa barne. Halaber, zerbitzu hori publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatzea erabaki zen.

Esleipen-ondorioetarako, kontratua bi lotetan banatzen da, Baldintza Teknikoen Pleguan zehazten direnak. Beraz, kontratua enpresa desberdinei

prorrogable por OTRO AÑO MÁS (1), sin que pueda la duración total del contrato exceder de los 2 (DOS) años.

SEGUNDO.- Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO.- Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe de 17.000€ (DIECISIETE MIL euros), IVA del 10% incluido.

**303.- ADJUDICACIÓN DEL LOTE II DEL SERVICIO DE GESTIÓN Y ORGANIZACIÓN DEL PROYECTO GETXOAKTIBATU.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Por Acuerdo nº243 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 01/07/2014 se inició la tramitación para la adjudicación de los SERVICIOS DE GESTIÓN Y ORGANIZACIÓN DEL PROYECTO GETXOAKTIBATU 2014, por importe de 32.691,78€ (TREINTA Y DOS MIL SEISCIENTOS NOVENTA Y UN euros y SETENTA Y OCHO céntimos), IVA del 21% incluido, acordándose igualmente proceder a su contratación por Procedimiento Negociado, sin publicidad.

A los efectos de la adjudicación, el contrato se divide en dos lotes, que se concretan en el Pliego de Condiciones Técnicas. Por lo tanto, se contempla la

loteka esleitzeko aukera aurreikusten da.

Loteak honako hauek dira:

1. Lotea: MERKATARITZA-AR DATZETAN KIROL-EMANALDI AK ANTOLATZEAREKIN LOTUTAKO JARDUERAK.

Lote honentzako gehieneko lizitazio-aurrekontua 14.541,78 eurokoa (HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA BERROGEITA BAT euro eta HIRUROGEITA HAMAZORTZI zentimo) da, %21eko BEZa barne.

2. Lotea: MERKATARITZAN ETA OSTALARITZAN ESTABLEZIMENDUETAN EKINTZAK ETA EKITALDI AK KUDEATZEAREKIN ETA PROFESIONALEKIN LOTUTAKO EKINTZAK.

Lote honentzako gehieneko lizitazio-aurrekontua 18.150 eurokoa (HAMAZORTZI MILA EHUN ETA BERROGEITA HAMAR euro) izango da, %21eko BEZa barne.

BIGARRENA.- 2014/07/07an, hiru enpresei erreferentzia egiten zaion espedientearen hasieraren berri ematen zaie, zehazki. II. Lotearen: MERKATARITZAN ETA OSTALARITZAN ESTABLEZIMENDUETAN EKINTZAK ETA EKITALDI AK KUDEATZEAREKIN ETA PROFESIONALEKIN LOTUTAKO EKINTZAK hasieraren berri. Horretarako, 10 (hamar) egun naturaleko epea ematen zaie, gonbidapena jasotzen dutenetik zenbatzen hasita. Behin epe hori amaituta, bi enpresek aurkezten dituzte proposamenak II. Lotearentzako.

HIRUGARRENA.- 2014/07/18an, egintza publikoan, II. Lotearen

posibilidad de adjudicar el contrato por lotes a diferentes empresas adjudicatarias.

Los lotes son los siguientes:

Lote 1: ACTIVIDADES RELACIONADAS CON LA ORGANIZACIÓN DE EVENTOS DEPORTIVOS EN EJES COMERCIALES.

El presupuesto máximo de licitación para este lote es de 14.541,78€ (CATORCE MIL QUINIENTOS CUARENTA Y UN euros y SETENTA Y OCHO céntimos), IVA del 21% incluido

Lote 2: ACCIONES RELACIONADAS CON LA GESTIÓN DE ACTOS Y EVENTOS DE LOS ESTABLECIMIENTOS Y PROFESIONALES EN LOS COMERCIOS Y LA HOSTELERÍA.

El presupuesto máximo de licitación para este lote es de 18.150€ (DIECIOCHO MIL CIENTO CINCUENTA euros), IVA del 21% incluido

SEGUNDO.- Con fecha 07/07/2014 se comunica a tres empresas la incoación del expediente de referencia, Lote II (denominado ACCIONES RELACIONADAS CON LA GESTIÓN DE ACTOS Y EVENTOS DE LOS ESTABLECIMIENTOS Y PROFESIONALES EN LOS COMERCIOS Y LA HOSTELERÍA) invitándoles a presentar ofertas, concediéndoles para ello un plazo de 10 (diez) días naturales a contar desde el siguiente al recibo de la invitación.

Finalizado dicho plazo dos empresas presentan proposición para el Lote II.

TERCERO.- El día 18/07/2014 se realiza, en acto público, la apertura de

dokumentazio orokorra barnebiltzen duen LEHENENGO gutun-azala irekitzen da. Dokumentu horiek positiboki kalifikatu ondoren honako enpresa hauen lizitazioak onartu ziren:

- GERONA GRUP BILBAO, S.L.
- MARE NOSTRUM IMAGE, S.L.

LAUGARRENA.- Lehenengo gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa ikusita, ekitaldi berean, BIGARREN gutun-azala irekitzen da, hau da, negoziatu daitezkeen alderdiak barnebiltzen dituen, honako emaitza honekin:

los sobres PRIMERO, del Lote II, conteniendo la documentación general. Calificados positivamente tales documentos, se admitió a la licitación a las siguientes empresas:

- GERONA GRUP BILBAO, S.L.
- MARE NOSTRUM IMAGE, S.L.

CUARTO.- Vista la documentación presentada en el sobre primero se procede, en este mismo acto, a la apertura de los sobres SEGUNDO, conteniendo los aspectos sujetos a negociación, a saber, el aspecto económico, con el siguiente resultado:

ENPRESA / EMPRESA	PROPOSAMEN EKONOMIKOA II. LOTEA / PROPOSICIÓN ECONÓMICA	
	II. LOTEA / LOTE II	
	OINARRIA / BASE	BEZa (%21) / IVA (21%)
GERONA GRUP	14.500€	3.045€
MARE NOSTRUM	15.000€	3.150€

Klausula ekonomiko-administratiboen pleguko 22. atalean aurreikusitako negoziazio-izapideari jarraiki, 2014/07/18an, aipatu lizitatzailerei kontra-eskaintzak aurkezteko epea ireki dela jakinarazten zaie.

Horretarako gaitutako epea amaituta, ez dute kontra-eskaintzarik aurkeztu.

BOSGARRENA.- 2014/07/22an, ekitaldi publikoan, HIRUGARREN gutun-azala irekitzen da NEGOZIATU EZIN DAITEZKEEN ETA AUTOMATIKOKI BALIOZTA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEI buruzkoa, honako emaitza honekin:

Como continuación del trámite de negociación previsto en el apartado 22 del pliego de cláusulas económico-administrativas, el día 18/07/2014 se comunica a los licitadores antedichos la apertura del plazo de presentación de contraofertas.

Finalizado el plazo otorgado para ello, no han sido presentadas contraofertas.

QUINTO.- Con fecha 22/07/2014, se realiza en acto público la apertura del sobre TERCERO relativo a los CRITERIOS NO SUJETOS A NEGOCIACIÓN Y NO EVALUABLES AUTOMÁTICAMENTE, con el siguiente resultado:

ENPRESA / EMPRESA	AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACION PRESENTADA
	II. LOTEA / LOTE II



GERONA GRUP	Eskaintza teknikoa / Oferta Técnica
MARE NOSTRUM	Eskaintza teknikoa / Oferta Técnica

Ondoren, eta lizitazioa eraentzen duten Pleguekin bat, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatzen eta zenbakitzen da eta aurkeztutako eskaintzak Getxolan-era igortzen dira dagokien balorazioa egiteko.

Seguidamente, y de conformidad con los Pliegos que rigen la licitación, se procede a foliar y numerar la documentación presentada y se remiten las ofertas presentadas Getxolan, para que sea realizada la valoración correspondiente.

SEIGARRENA.- 2014/07/28an, Getxolan-eko teknikari den Mirene Zabalgogeoazcoa andreak erreferentzia egiten zaion prozedurara aurkeztutako proposamenaren abantaila handiagoari edo txikiagoari buruzko txostena ematen du lizitazioa eraentzen duten Pleguan jasotako balorazio-irizpideekin bat. Balorazio horretan eskaintza ekonomikoa ez da kontuan hartuko. Emaidza honako hau izan da:

SEXTO.- Con fecha 28/07/2014, D<sup>a</sup> Mirene Zabalgogeoazcoa, Técnica de Getxolan, emite Informe Técnico, sobre la mayor o menor ventaja de las propuestas presentadas al procedimiento de referencia, de acuerdo con los criterios de valoración recogidos en los Pliegos que rigen la licitación, sin tener en cuenta en dicha valoración la oferta económica, con el siguiente resultado:

ENPRESA / EMPRESA	MARE NOSTRUM	GERONA GRUP
<b>II. lotea / Lote II</b>		
Esku-hartzeen proposamena / Propuesta intervención	6 puntu / puntos	10 puntu / puntos
Esku-hartzeen edukien proposamena / Propuesta contenido de las intervenciones	7 puntu / puntos	10 puntu / puntos
Erabiltzaileen eta ekintzen Balioztatzeak, txostenak eta jarraipena / Evaluación, informes y seguimiento usuarios y acciones	0 puntu / puntos	8 puntu / puntos
Jarduera kontrolatzeko eta jarraipena egiteko Getxolan-i eskuragarri jarritako zerbitzua kudeatzeko tresnak / Herramientas gestión del	0 puntu / puntos	4 puntu / puntos

servicio a disposición para control y seguimiento actividad		
<b>Puntuazioa, guztira / Puntuación Total</b>	<b>13 puntu / puntos</b>	<b>32 puntu / puntos</b>

ZAZPIGARRENA.- Aurreko paragrafoetan zerrendaturikoa kontuan hartuta, lizitatuzaileek lortzen dituzten amaierako puntuazioak honako hauek dira:

SÉPTIMO.- Teniendo en cuenta lo relacionado en los apartados anteriores, las puntuaciones finales que obtienen los licitadores son las siguientes:

<b>ENPRESA / EMPRESA</b>	<b>II. LOTEA / LOTE II</b>		<b>GUZTIRA / TOTAL</b>
	<b>Negoziatu ezin daitezkeen alderdiak</b> (automatikoki baliozta ezin daitezkeen irizpideak) / <b>Aspectos no sujetos a negociación</b> (criterios no evaluables automáticamente)	<b>Negoziatu daitezkeen alderdiak (proposamen ekonomikoa) / Aspectos sujetos a negociación</b> (proposición económica)	
GERONA GRUP	32	51	<b>83</b>
MARE NOSTRUM	13	49,30	<b>62,30</b>

ZORTZIGARRENA.- Aurrekariak ikusita, 2014/08/11n, enpresei agindeia egiten zaie SPKLTBaren 146.4 eta 151 artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako, zehazki:

OCTAVO.- Visto cuanto antecede, en fecha 11/08/2014 se requiere a las empresas a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, a saber:

a) Gaitasun juridikoaren eta jarduteko gaitasunaren agiri bidezko egiaztapena eta kontratatze gaikuntza, hau da, Klausula Ekonomiko Administrazioen Pleguko 19.1 artikuluan zerrendatutako agiriak.

a) Acreditación documental de su capacidad jurídica y de obrar y su habilitación para contratar, es decir, los documentos relacionados en el apartado 19.1 del Pliego de Cláusulas económico-administrativas.

b) Zerga-betebeharrekin eta Gizarte-Segurantzakoekin egunean egotea.

b) Hallarse al corriente del cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

c) 725 euroko behin betiko bermea

c) Haber constituido garantía

eratu izana.

Espedientean, dagokion dokumentazioa jasota dago, enpresak errekerimendu hori betetzeko aurkeztutakoa.

#### ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina (SPKLTB), Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua, irailaren 27ko 14/2013 Legeak emandako bertsioan, ekintzaileen eta haien nazioartekotzearen laguntzari buruzkoa.

II.- Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretu bidez onetsia eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, SPKLTB aurkaesaten ez duen heinean.

III.- 7/85 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, apirilaren 18ko 781/1986 ELD bidez onartutako Testu Bategina eta harekin lotutako aplikagarri den gainerako legedia.

IV.- Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio proposatzen den esleipena egitea, bera baita kontratazio-espeditente honetako kontratazio-organo eskumenduna.

Kontratazio-Zerbitzuko zinegotziaren eskariz, Tokiko Gobernu Batzordeari helarazten zaio aintzat har dezan honako

#### ERABAKI-PROPOSAMENA

LEHENENGOA.- GERONA GRUP BILBAO, S.L. (IFK: B95226932) enpresari GETXOAKTIBATU 2014

definitiva por importe de 725 euros.

En el expediente consta la correspondiente documentación presentada por la empresa al cumplimentar el requerimiento antedicho.

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, en su versión dada por la Ley 14/2013, de 27 de septiembre, de apoyo a los emprendedores y su internacionalización.

II.- El Reglamento General de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre y Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, en lo que no se opongan al TRLCSP.

III.- Ley 7/85 de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexas que resulte de aplicación.

IV.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

A instancia del Concejal Responsable del Servicio de Contratación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

#### PROPUESTA DE ACUERDO

PRIMERO.- Adjudicar a la empresa GERONA GRUP BILBAO, S.L., con CIF B95226932, los SERVICIOS DE GESTIÓN Y ORGANIZACIÓN DEL

PROIEKTUA KUDEATZEKO ETA ANTOLATZEKO ZERBITZUAK, 2. Lotea: MERKATARITZAN ETA OSTALARITZAN ESTABLEZIMENDUETAN EKINTZAK ETA EKITALDIAK KUDEATZEAREKIN ETA PROFESIONALEKIN LOTUTAKO EKINTZAK, esleitzea 14.500 € gehi horren BEZaren %21ari dagozkion 3.045 euroren truke.

Kontratuaren egikaritze-epea 2014ko abenduaren 31ra zabalduko da, hura izenpetzen denetik zenbatzen hasita.

Kontratua jatorrian esleitu zen denboraldi berdinean luza daiteke.

BIGARRENA.- Esleipendunak, SPKLTBaren 156.1 artikulua arabera, Kontratazio-Zerbitzuaren bulegoetan, Foru kaleko 8. zenbakian dagoena, aurkeztu beharko du kontratua administrazio-dokumentuan formalizatzeko, gehienez, erabaki honen jakinarazpena jaso ondoko hamabost egun baliadunen epean.

**304.- GETXOKO KONTSUMITZAILEEN ALDE EGIN DEZAN AHOLKULARITZA TEKNIKO JURIDIKOAREN ZERBITZUA ESLEITZEA.**

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

EGITATEZKO AURREKARIAK LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzordeak 2014/06/03an hartutako 192 zenbakidun Erabaki bidez, GETXOKO PERTSONA

PROYECTO GETXOAKTIBATU 2014, Lote 2: ACCIONES RELACIONADAS CON LA GESTIÓN DE ACTOS Y EVENTOS DE LOS ESTABLECIMIENTOS Y PROFESIONALES EN LOS COMERCIOS Y LA HOSTELERÍA, por importe de 14.500€, más 3.045€ correspondientes al 21% de IVA.

El plazo de ejecución del contrato se extenderá hasta el 31 de diciembre de 2014, a contar desde la fecha de la firma del mismo.

El contrato será susceptible de una prórroga por el mismo tiempo por el que fue adjudicado en origen.

SEGUNDO.- Los adjudicatarios, de conformidad con lo indicado en el artículo 156.1 del TRLCSP, deberán comparecer en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, para formalizar el contrato en documento administrativo, en un plazo máximo de quince días hábiles desde la recepción de la notificación del presente acuerdo.

**304.- ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE ASESORÍA TÉCNICO-JURÍDICA PARA LA REALIZACIÓN DE FUNCIONES DE DEFENSA DE LAS PERSONAS CONSUMIDORAS DE GETXO.**

A propuesta del concejal responsable del Servicio de Contratación, se acordó:

ANTECEDENTES DE HECHO PRIMERO.- Por Acuerdo nº192 adoptado por la Junta de Gobierno Local en fecha 03/06/2014 se inició la tramitación para la adjudicación del

KONTSUMITZAILEEN DEFENTSA-FUNTZIOAK GAUZATZEKO AHOLKULARITZA TEKNIKO JURIDIKOKO ZERBITZUA esleitzeko izapidetzeari hasiera eman zitzaion 40.147,80 euroren (BERROGEI MILA EHUN ETA BERROGEITA ZAZPI euro eta LAUROGEI zentimo) truke, zehazki, urtean, 20.073,90 euro (HOGEI MILA ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU euro eta LAUROGEITA HAMAR zentimo), %21eko BEza barne. Halaber, zerbitzu hori publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez kontratatzea erabaki zen.

BIGARRENA.- 2014/06/12an, erreferentziatzeko espedientearen hasieraren berri hiru enpresei ematen zaie eta eskaintzak egiteko gonbitea luzatzen zaie, horretarako 10 (hamar) egun balioduneko epea emanez, zeina, gonbidapena jaso ondoko egunetik hasiko den zenbatzen. Epe hori amaituta, bi enpresek aurkezten dituzte beren proposamenak.

HIRUGARRENA.- 2014/06/27an, ekitaldi publikoan, LEHENENGO gutun-azala irekitzen da, dokumentazio orokorra barnebiltzen duena. Honako enpresek aurkeztutako gutun-azalak irekitzen dira:

- EKA/OCUV ORG. DE PERSONAS CONSUMIDORAS Y USUARIAS
- URKOA, ASOC. DE PERSONAS CONSUMIDORAS Y USUARIAS

LEHENENGO GUTUN-AZALEAN aurkeztutako dokumentazioa ikusita, BIGARREN GUTUN-AZALA irekitzen da, NEGOZIA DAITEZKEEN ALDERDIEI buruzkoa, hots, alderdi ekonomikoari, honako emaitza honekin:

SERVICIO DE ASESORÍA TÉCNICO-JURÍDICA PARA LA REALIZACIÓN DE FUNCIONES DE DEFENSA DE LAS PERSONAS CONSUMIDORAS DE GETXO, por importe de 40.147,80€ (CUARENTA MIL CIENTO CUARENTA Y SIETE euros y OCHENTA céntimos), a razón de 20.073,90€ (VEINTE MIL SETENTA Y TRES euros y NOVENTA céntimos) anuales, IVA del 21% incluido, acordándose igualmente proceder a su contratación por Procedimiento Negociado, sin publicidad.

SEGUNDO.- Con fecha 12/06/2014 se comunica a tres empresas la incoación del expediente de referencia, invitándoles a presentar ofertas, concediéndoles para ello un plazo de 10 (diez) días hábiles a contar desde el siguiente al recibo de la invitación.

Finalizado dicho plazo, dos empresas presentan proposición.

TERCERO.- El día 27/06/2014 se realiza, en acto público, la apertura de los sobres PRIMERO, conteniendo la documentación general. Se procede a la apertura de los sobres presentados por las siguientes empresas:

- EKA/OCUV ORG. DE PERSONAS CONSUMIDORAS Y USUARIAS
- URKOA, ASOC. DE PERSONAS CONSUMIDORAS Y USUARIAS

A la vista de la documentación presentada en el SOBRE PRIMERO, procede la apertura del SOBRE SEGUNDO, correspondiente a los ASPECTOS SUJETOS A NEGOCIACIÓN, a saber, el aspecto económico, con el siguiente resultado:

<b>ENPRESA / EMPRESA</b>	<b>NEGOZIATU DAITEZKEEN ALDERDIAK PROPOSAMEN EKONOMIKOAK (BEZA SARTU GABE) / ASPECTOS SUJETOS A NEGOCIACIÓN PROPOSICION ECONÓMICA (IVA NO INCLUIDO)</b>
<b>EKA/OCUV</b>	30,00€/orduko / 30,00€/hora
<b>URKOA</b>	29,10€/orduko / 29,10€/hora

Klausula ekonomiko-administratiboen pleguko 22. atalean aurreikusitako negoziazio-izapideari jarraiki, 2014/06/30ean, aipatu lizitatzailerei kontra-eskaintzak aurkezteko epea ireki dela jakinarazten zaie.

Arestian zerrendatutako enpresek ez dute kontra-eskaintzarik aurkeztu, beraz, enpresa horiek aurkeztutako proposamen ekonomikoei eusten diete.

LAUGARRENA.- 2014/07/03an, ekitaldi publikoan, HIRUGARREN gutun-azala irekitzen da NEGOZIATU EZIN DAITEZKEEN ETA AUTOMATIKOKI BALIOZTA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEEI buruzkoa, honako emaitza honekin:

Como continuación del trámite de negociación previsto en el apartado 22 del pliego de cláusulas económico-administrativas, el día 30/06/2014 se comunica a los licitadores antedichos la apertura del plazo de presentación de contraofertas.

No se ha presentado contraoferta por parte de las empresas relacionadas anteriormente por lo que se mantiene la proposición económica presentada por las mismas.

CUARTO.- Con fecha 03/07/2014, se realiza en acto público la apertura del sobre TERCERO relativo a los CRITERIOS NO SUJETOS A NEGOCIACIÓN Y NO EVALUABLES AUTOMÁTICAMENTE, con el siguiente resultado:

<b>ENPRESA / EMPRESA</b>	<b>DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN</b>
EKA/OCUV ORGANIZACION VASCA DE PERSONAS CONSUMIDORAS	Eskaintza teknikoa / Oferta técnica
URKOA, ASOCIACIÓN DE CONSUMIDORES Y USUARIOS	Eskaintza teknikoa / Oferta técnica

Ondoren, eta lizitazioa eraentzen duten Pleguekin bat, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatzen eta zenbakitzen da eta aurkeztutako eskaintzak Komunikazio-Arlora igortzen dira dagokien balorazioa egiteko.

BOSGARRENA.- 2014/07/10ean, Komunikazio-Arloko teknikari den Javier Garcia Alonso jaunak

Seguidamente, y de conformidad con los pliegos que rigen la licitación, se procede a foliar y numerar la documentación presentada y se remiten las ofertas presentadas al Área de Comunicación a fin de que realice la valoración pertinente.

QUINTO.- Con fecha 10/07/2014, D. Javier García Alonso, responsable del Área de Comunicación, emite informe

erreferentzia egiten zaion prozedurara aurkeztutako proposamenaren abantaila handiagoari edo txikiagoari buruzko txostena ematen du lizitazioa eraentzen duten Pleguan jasotako balorazio-irizpideekin bat. Balorazio horretan eskaintza ekonomikoa ez da kontuan hartuko. Eraitza honako hau izan da:

